



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GIZARTE
ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIAS SOCIALES
Y DE LA COMUNICACIÓN

NAZIOARTEKO IKASKETAK MASTERRA

www.ehu.eus

AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Master hau graduondoko prestakuntza eskaintzarik berritzaile eta finkatuenetakoa da 2007/2008 ikasturtetik nazioarteko ikasketen arloan. Ikerketa masterra denez, hura gainditzeak Europako Unibertsitate Eremu guztiko doktorego ikasketetara sarbidea ematen du. Masterraren helburu nagusia da nazioarteko ikasketen arloko prestakuntza espezializatua eskaintzea eta arlo horretako ikertzaileak prestatzea: nazioarteko ikasketen arloan diziplina anitzeko ikuspegia izango duen prestakuntza integralean sakontzea; nazioarteko errealitatea aztertu eta interpretatu ahal izateko tresna kontzeptual eta teorikoak eskaintzea; eta nazioarteko gaiari buruzko ikerketaren arloan lan

profesionala egiteko egokia den espezializazioa ematea.

Irakaskuntza gure unibertsitateko eta estatuko zein nazioarteko beste unibertsitate batzuetako espezialisten esku dago, eta eskaintzak, bere kalitateari esker, izen handia lortu du gure mugen barruan eta gure mugetatik kanpo.

Masterrak 2007tik dauka ANECaren akreditazio ofiziala, zeina UNIBASQek egiaztatu zuen 2014an eta 2019an. Horrez gain, gure masterrak MECESeko 3. maila dauka aitortuta eta maila hori EQFko 7. mailaren parekoa da, urtarrilaren 23ko 2015/22 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat (2015/02/07ko BOE).

SARBIDEA

Gizarte eta giza zientzien arloko Gradua edo Lizentziatura eta bokazio internazionalista sendoa. Espediente akademikoaz gain, kontuan hartuko dira nazioartean egindako lan profesionala edo boluntario lana eta hizkuntzak.

IRTEERA PROFESIONALAK

Nazioarteko harremanetako espezialista, sektore publikoan zein pribatuan: diplomazia, nazioarteko politikaren analisia, nazioarteko gaien inguruko aholkularitza, irakaskuntza eta ikerketa espezializatua, nazioarteko gobernu erakundeak eta gobernu kanpokoak, nazioarteko komunikazioa eta nazioarteko proiektuen kudeaketa.

OINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskolak emateko lekua:	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea (Leioa).
Irakaskuntza mota:	Aurrez aurrekoa, elementu birtualekin.
Hizkuntza:	Gaztelania eta ingelesa. MALa eta irakasgai jakin batzuen lanak euskaraz eta ingelesez ere egin ahal izango dira.
Gutxi gorabeherako prezioa:	1.850-2.050 €.
Egutegia:	Aurrez aurreko saioak arratsaldean izango dira asteleheneetik ostegunera, nahiz eta mintegi batzuk, bereziki kanpoko irakasle gonbidatuek emandakoak, ostiral goizetan antolatuta ahal izango diren.

IRAKASTORDUAK / IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte 1

Nahitaezko gaiak <hr/> 4 ECTS kreditu	Hautazko gaiak <hr/> 40 ECTS kreditu	Proiektuak / Ikerketa-proiektuak <hr/> 16 ECTS kreditu	Guztira <hr/> 60 ECTS kreditu
---	--	--	---

PRESTAKUNTZA PROGRAMA

Nahitaezkoak:

- Gizarte-zientzietarako ikerkuntza-metodologia eta teknikak (4 ECTS)

Hautazkoak:

- Nazioarteko harremanen teoria (4 ECTS)
- Nazioarteko ordena juridikoaren oinarriak (4 ECTS)
- Nazioarteko sistemaren jarraitutasuna eta aldaketa (4 ECTS)
- Nazioarteko ekonomia politikoa (4 ECTS)
- Diplomaziaren garaiko transformazioak (4 ECTS)
- Gatazka, segurtasuna eta garapena (4 ECTS)
- Nazio Batuen sistema (4 ECTS)
- Europar batasunaren erakundeak eta politikak (4 ECTS)
- Globalizazio eta nazioarteko harremanak (4 ECTS)
- Nazioarteko ordena eztabaidagai (4 ECTS)
- Integrazio-esperientziak Afrikan, Amerikan eta Asian (4 ECTS)
- Problema globalak nazioarteko sisteman (4 ECTS)
- Mundu globalaren lurralde-arazo handiak (4 ECTS)
- Deszentralizazioa nazioarteko sisteman (4 ECTS)

HARREMANETARAKO

Arduradunak: Iratxe Perea Ozerin

Tel.: 94 601 5280

E-maila: iratxe.perea@ehu.eus

Master Idazkaria: Laura López Castro

Tel.: 94 601 3006

E-maila: gkz.masterra@ehu.eus

